

Bilbon, 1996ko maiatzaren 31an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Azkarate, M.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Ondarra, P.
Peillen, Tx.
Salaburu, P.
San Martin, J.
Sarasola, I.
Saturustegi, J.M.
Villasante, L.
Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea

ematea proposatu E. Knörrrek bere izkribuan; X. Kinta-nak, berriz, *borraia*, Bizkaiko kostan erabilia. *Brentsa* eta *brentsatu* aldaerak hiztegi honetan agertuko dira, “ik. *prentsa*, *prentsatu*” ondoan dutela. Idatzizko oharraren arabera orobat, *buelta* eta *bueltatu* hitzen aldamenean bi marka erantsiko dira: Hegoaldekoak direla eta ez dagozkiola euskara jasoari.

Mundu zabaleko ibaien eta aintziren zerrenda, Onomastika batzordeak onartua, aztertu eta onetsi da halaber batzarrean. Zerrendatik, hala ere, *Esklabuen Aintzira Handia* kendu da, Euskara Batuko batzordeak eskaturik, *esklabo* / *esklabu* auzia argitu arte.

Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa

Informatika tresneriaren laguntzaz, Beñat Oihartzabal Dialektologia-Atlasgintza batzordeburuak Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren egoera azaldu du xeheki. Erantzun guztiak paper eta bandetatik ordenagailura pasatzearen lana aurrera doala esan du: 1/3 egin da, gutxi gora behera. Helburua erabiltzaileak behar duen informazioa laster eta

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1996ko maiatzaren 31an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. X. Diharcek bere ezin etorria adierazi du.

Agiriak

Apirileko agiria onartu da, zenbait zuzenketarekin.

Hiztegi Batua

Egungo batzarrean *bizi-buztintsu* hitz saila zegoen onarkizun. Ibon Sarasolak azaldu du batzordearen lana. E. Knörrrek bidali ditu zenbait ohar.

Blusa / *brusa* bikotea, batzordeak eztabai-darako utzia, mintzagai izan da minutu batzuetan. Azkenean, sarrera bana ematea erabaki da aho batez. *Borraia* / *borraja* auzian, bigarren forma hobestea erabaki da bozketaz. Lehentasuna *morrain* aldaerari

modu errazean aurkitzea da. Datuak mapetara eramatea geroko eginkizuna izango da. Lehen liburukia 1997an edo 1998an agertuko dela espero da.

Azalpenaren harian, zenbait galderari ihardetsi die Oihartzabal jaunak. Bukaeran, eskerrak eman dizkio J. Haritschelhar euskaltzainburuak.

XIV. Biltzarra

Antoine d'Abbadieren heriotzaren mendeurrenkari 1997ko irailean izango den Biltzarraren antolatzeaz mintzatu da Haritschelhar jauna. Eusko Ikaskuntzaren Zuzendaritzarekin izandako lehen bilkura aipatu du. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Biltzar honen berariazko batzorderako proposatu dituen kideak onartu dira egungo batzarrean. Hauek dira: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, E. Knörr, J.A. Arana, P. Charriton, B. Oihartzabal, J.L. Davant, Tx. Peillen eta J.L. Lizundia. Antolakizun eta Akademia alortako azpibatzerdeen banaketa bere barnean egingo da.

Eskuartekoak

Euskal Autonomia Erkideagoren eta Nafarroako Erkideagoaren Lankidetzaren Hitzarmenaren testua eman zaie euskaltzainei. Hitzarmena bi Gobernuak onartu dute eta Gasteizko, Iruñeko eta Madrilgo parlamentuetatik pasa behar da.

A. Irigoyenek prestatutako “-*Tar* jendeari dagokion berrekailua zenbait autoretan, eta baita ere -*tiar* / -*liar*” deritzan txostena banatu da orobat.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.